



Agur aurtengo Naturaldiari

INGURUMENA • Naturaldiaren baitako azken ekitaldia izan zen atzokoan, Kultur Etxean. Hain zuzen ere, Adimen ekologikoaz aritu zen Jose Antonio Marina irakasle eta filosofoa, Jonan Fernandez Baketik-eko zuzendaria aurkezle zuela. Kultur Etxea jendez bete zen azken ekitaldi honetan. Hasiera batean datorren aste-

lehenerako *Atanar Juat: La leyenda del hombre veloz* filma aurreikusi zen Leidorren, baina azkenean bertan behar geratu da. Bestalde, Tolosako ekitaldiak bukatu diren arren, Naturaldiaren egitaraua ez da amaitu, maiatzean eta ekainean Erreterira, Zarautzera eta Hernaniko Txillida Lekura zabalduko baitute. i.t.